

Atal honetan bezeroari eskainiko dioguna definitu beharko dugu, alegia, zein arazo konpondu edo beharrian aseko diogun.

Zer eskaintzen diogu bezeroari? Zein arazo edo beharrian asetzen dugu?

IRRIBERRI-k hainbat arazo eta beharrian sakoni erantzuten die, batez ere gatazka, pobrezia eta bazterketa sozialak markatutako pertsonen errealitateari. Lehenik eta behin, protesi dentalak eskuratzeko oztopo ekonomiko eta geografikoak gainditzen ditu. Mundu osoan badaude hortzak galdu dituzten pertsonak, traumatismoengatik, indarkeria matxistagatik, gerrengatik, migrazio behartuen ondorioz edo baliabide ekonomiko eskasagatik. Pertsona hauek askotan ez dute aukera medikorik, ez odontologorik, ez laborategirik. Irriberri-k doako protesi dentalak eskaintzen dizkie, plataforma digitalean profesional boluntarioak eta laguntza behar duten pertsonak zuzenean konektatuz. Horrela, osasun-zerbitzu eskuragarria ezin duten komunitateei ateak irekitzen dizkie.

Bigarrenik, proiektuak dimentsio sozial eta emozional oso garrantzitsu bati heltzen dio: hortzik eza askotan estigma, bullying, isolamendua edo autoestimaren galera bihurtzen baita. Hortz protesi bat ez da soilik pieza fisiko bat; askorentzat irribarrea berreskuratzea da, paradoxikoki, bizitzara itzultzea. Irriberri-k pertsonen duintasuna, konfiantza eta harreman sozialak berreskuratzen laguntzen du, irribarreak berriro agertzen direnean beste aukera bat pizten delako.

Hirugarrenik, Irriberri-k azpiegitura mediko tradizionalen gabeziari irtenbidea ematen dio 3D inprimaketaren eta fabrikazio digitalaren bidez. Gerrak, hondamendi naturalak edo errefuxiatu kanpalekuak bezalako testuinguruetan ez dago laborategi dentaltzat funtzionatzeko moduko egiturarik. Horregatik, sare deszentralizatu bat sortu da: makerspaceak, unibertsitate tailerrak eta laborategi txikiak mundu osoko puntu ezberdinetan. Haiek dira protesiak merke, azkar eta material biobateragarriekin fabrikatzen dituztenak. Horrek aukera ematen du laguntza fisikoki iristen ez den lekuetara ere heltzeko.

Laugarrenik, Irriberri-k heziketa- eta garapen-aukerak eskaintzen ditu baliabide gutxiko gazteei. Proiektuaren bidez doako formakuntza jasotzen dute diseinu digitalen, 3D modelatzearen eta inprimaketa teknologiaren inguruan. Horrela, “irribarreak inprimatzen” ikasten dute, bai literalki eta bai sinbolikoki, eta etorkizunean lan-aukera errealei sarbidea irekitzen zaie. Hau ez da soilik laguntza medikoa: aukera soziala, teknologikoa eta ekonomikoa ere bada.

Bosgarrenik, Irriberri-k gardentasun osoa bermatzen du teknologia digitalen erabileraren bidez. Blockchain sistemak protesi bakoitza nork diseinatu, nork inprimatu eta nori eman zaion erregistratzen du. Horrek konfiantza sortzen du

komunitatean, eta erakusten du elkartasuna modu arduratsuan eta egiaztagarrian gauzatzen dela.

Azkenik, proiektuak komunitatea eta konexioa sortzen ditu. Laguntza eskatzen duten pertsonak askotan bakarrik sentitzen dira, baina Irriberrri-k narrazioak, testigantzak eta istorioak partekatzeko espazio segurua eskaintzen du. Emozioz beteriko istorio horien bidez; bullying-aren aurkako borrokak, arrazakeriaren kontrako erantzunak, indarkeria gainditzeko prozesuak, mundu osoko boluntario gazteak inspiratzen dira. Horrela, sare global, aktibo eta solidario bat eratuta, teknologia erabiltzen da mundua pixka bat hobea bihurtzeko.

Laburbilduz, Irriberrri-k ez du soilik protesi dentalak sortzen: aukera berriak, autoestimaren berreskurapena, prestakuntza teknologikoa eta komunitate solidarioa eskaintzen ditu. Bere helburua da pertsonen irribarrea eta istorioa aldi berean berreraikitzea, laguntza medikoa, soziala eta emozionala uztartuz. Eta aipatutako guztia, ikasketa prozesuan dauden ikasleek egingo dute, haien jakinduria uztartuz.